

Elikadurari buruzko ikerketa- proposamenak (GrAL)

Gizarte Hezkuntzako
Gradurako



a

aliment
acción

Elikadurari buruzko ikerketa-proposamenak
(GrAL) Gizarte Hezkuntzako Gradurako

2025eko ekaina

Argitalpen honek AECID Garapenerako
Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako
Agentziaren finantza-laguntza izan du.
Argitalpenaren edukia Hegoaren eta Justicia
Alimentariaren erantzukizun eksklusiboa da eta ez
du zertan AECIDen iritzia adierazi.

Itzultzailea: Iñigo Gallastegi

Diseinatzailea eta maketatzailea:
Fàbrica Gràfika Coop V (fabrikagrafika.com)

Programa:



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioarte-
koa

Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago.
Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki
partekatzea baldin eta egilea aitortzen bada eta merkata-
ritza-xedeetarako erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau alda-
tu, eraldatu edo honetatik beste lan bat eratorri. Lizentzia
osoa, hemen: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>

Editoreak:



Justicia Alimentaria
C/ Floridablanca 66-72 · Local 5
08015 Barcelona
Tel. 93 423 70 31
info@justiciaalimentaria.org
<https://justiciaalimentaria.org>



Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari
Buruzko Ikasketa Institutua
Zubiria Etxea. UPV/EHU
Lehendakari Agirre etorb., 83
48015 Bilbo
Tel. 94 601 70 91

Arabako Campuseko Biblioteka. UPV/EHU
Nieves Cano, 33
01006 Gasteiz
Tel. 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus
<https://www.hegoa.ehu.eus>

Finantzatzailea:



Aurkezpena. **4**

1. Elikadura eta gizarte bazterkeria: elikadura duina izateko eskubidea. **6**

2. Jantoki sozialak eta komunitarioak: inklusiorako eremuak. **8**

3. Elikadura hezkuntza kritikoa testuinguru ez-formaletans. **10**

4. Elikadura migrazio-prozesuetan ahalduztzeko tresna gisa. **12**

5. Elikadura nahasmenduak eta gizarte kalteberatasuneko testuinguruak. **14**

6. Elikadura burujabetza hiritestuinguruetan: komunitate eta hezkuntza ekimenak. **16**

7. Haurrak, pobrezia eta malnutrizioa: gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeko ikuspegi bat. **18**

8. GIHeKin bat datozen elikadura-politika publikoak: gizarte eraldaketarako aukera. **20**

9. Ekofeminismoak, feminismo komunitarioak eta elikadura Gizarte Hezkuntzan. **22**

10. Baratze komunitarioak eta sozialak Gizarte Hezkuntzarako tresna gisa. **24**

Aurkezpena.



Bidezko Elikadura gaur egungo nekazaritza eta elikadura sistema eraldatzeko konpromisoa duten hainbat lagunek osatzen dute. Izan ere, eredu horrek gaixotasun kronikoak areagotzen ditu, komunitate landatarrak kanporatzen eta zapaltzen ditu eta ingurumena narriatzen du. Horren aurrean, bizitzan zentratutako elikadura-sistema bidezkoen eta iraunkorren alde egiten dugu.

Hegoa Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua Euskal Herriko Unibertsitateko institutu mistoa da, eta gizartea eraldatzeko lan egiten du ikuspegi kritiko batetik. Ikerketaren, prestakuntzaren eta eragiteko lanaren bitartez, bizitzaren iraunkortasunerantz ibiltzeko esparru teorikoak eta estrategiak sustatzen ditugu.

2014az geroztik, erakunde biak elkarlanean aritu gara **Alimentación** Sarearen esparruan. Hura hezkuntza formalaren arloko estrategia komun bat da. Hala, gure lana ikastetxeetan eraldaketa ekosozialeko prozesuak bultzatzera bideratzen da, eta, horretarako, ikastetxe horien antolaketakultura sustatzen dugu, tokiko elikadura sistema askotarikoak eta iraunkorrak lortzeko helburuz. Proposamen horren erdian, hain zuzen, pertsonen eta komunitateen beren elikadura eta ekoizpen ereduen inguruan erabakitzearen eskubidea izatea dago.

Gaur egun, gure lana unibertsitate eremuan zentratzen da batez ere. Horregatik, gida hau **Gizarte Hezkuntzako Graduak** ikasleei zuzenduta dago, hain zuzen ere, **Gratu Amaierako Lanetarako (GrAL)** elikadurari buruzko ikerketa-proposamenak eskaintzeko.

Dokumentuak elikadura-sistemari lotutako gizarte-problematikak lantzen dituzten **10 proposamen** jasotzen ditu. Proposamen bakoitzak honako hauek ditu:

- arazoaren planteamendu bat,

- ikerketarako galdera proposamenak,
- eta gaian sakontzeko erreferentzia bibliografikoak.

Elikaduraren gaira ikuspegi kritiko, sozial eta eraldatzaile batetik hurbildu nahi duten horiei zuzenduta daude proposamenak. Hasi aurretik, funtsezko galdera honi buruz hausnartzera animatzen zaitugu:

Zertarako ikertzen dugu?

Gure ustez, Gizarte Hezkuntzaren arloko ikerketa, errealitatea ulertzen lagundu ez ezik, hura eraldatzen lagundu behar du. Kasu honetan, elikadura industrializatuaren ereduak gizarte injustiziarekin dituen lotura ugariak bistaratzea da helburua, eta, hori ulertuta, alternatiba bidezkoagoak, iraunkoragoak eta kolektiboagoak garatzeko bideak esploratzea.

Proposamen horiek esploratzera gonbidatzen zaitugu, eta, bidean laguntzarik behar baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan.

1.

Elikadura eta gizarte bazterkeria: elikadura duina izateko eskubidea.



1.1 Arazoaren planteamendua.

Elikadura osasungarria, nahikoa eta kulturalki egokia izatea giza eskubidea da. Hala ere, gizarte bazterketako egoeran dauden pertsona askorentzat (etxerik gabeko pertsonak, arauz kontrako egoeran dauden migranteak, pobrezia handiko egoeran dauden familiak) eskubide hori eguneror urratzen da. Elikadura ez da nutrizioa bakarrik; identitatea, partaide izatea eta duintasuna ere bada. Zer nolako eginkizuna izan dezake Gizarte Hezkuntzak desparekotasun horiek bistaratzeko eta eraldatzeko?

1.2 Ikerketa galderak.

■ Zure autonomia-erkidegoan, zer araudi daude elikatzeko eskubidea babesten dutenak?

■ Nola eragiten du prekarietate ekonomikoak elikadura osasungarria izateko aukeran? Eta azterketa horretan genero-desberdintasunak kontuan hartzen baditugu?

■ Zer nolako eginkizuna dute elikadura laguntzako baliabideak eskubide horien sustapenean edo urraketan?

■ Ekintza komunitarioko zer esperientziak lantzen dute elikadura ikuspegi askatzaile batetik?

■ Nola sar dezake Gizarte Hezkuntzak elikadura eskubidea bere hezkuntza eta komunitate praktiketan?

1.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ Observatorio del derecho a la alimentación:
<https://www.derechoalimentacion.org/>

■ Justicia Alimentaria:
<https://justiciaalimentaria.org>

■ FAO. Marco del derecho a la alimentación:
<https://www.fao.org/right-to-food/es>

2.

Jantoki sozialak eta komunitarioak: inklusioko eremuak.



2.1 Arazoaren planteamendua.

Jantoki, sozial, herritar eta komunitarioak elikadura segurtasunik ezari aurre egiteko sortu ziren, baina baita topaketa, duintasun eta ahalduntze eremuak izateko ere. Haien kudeaketarekin zerikusia duen guztia kontuan hartzea komeni da: noren mende dauden, arlo horretako politika publikoak zein diren eta eremu horiek kudeatzen dituzten erakundeekiko harremana nola planteatzen den. Horrek guztiak ideia bat eman diezaguke, ea eremu asistentzialista gisa edo inklusiorako tresna gisa diseinatzeko diren. Zer ikuspegi etiko eta pedagogiko ekar dezake Gizarte Hezkuntzak?

2.2 Ikerketa galderak.

■ Zer jantoki eredu daude eta zer helburu dituzte? Noren esku dago kudeaketa?

■ Zer eragin dute jantoki komunitarioek gizarte-inklusioko prozesuetan?

■ Parte hartzeko eta prestakuntzako dinamikak sartzen al dira eremu horietan?

■ Nola lagun dezake Gizarte Hezkuntzak eremu horiek eraldatzen gizarte justiziako ikuspegi batetik?

■ Zerbitzu publikoak sustatzen dituzten jantoki sozialeko eremuak zer logikatan oinarritzen dira? Zer nolako dinamikak erreproduzitzen dituzte?

2.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ Komunitatea hauspotzeko jantokia:

https://www.berria.eus/lurraldeak/nafarroa/komunitatea-hauspotzeko-jantokia_2137286_102.html

■ Comedores comunitarios. Cambio de modelo productivo:

<https://vientosur.info/comedores-comunitarios/>

■ Género, precariedad y exclusión: experiencias de mujeres que utilizan comedores sociales:

https://www.researchgate.net/publication/355430741_Genero_precariedad_y_exclusion_experiencias_de_mujeres_que_utilizan_comedores_sociales

■ Reas Euskadi. Economía alternatibo eta solidarioa:

<https://reaseuskadi.eus/eu/>

■ Alimentar el cambio:

<https://alimentarelcambio.es/>

3.

Elikadura hezkuntza kritikoa testuinguru ez-formaletan.



3.1 Arazoaren planteamendua.

Elikadura-hezkuntza ikuspegi biomediko edo konduktista batetik landu ohi da, "osasungarri jatera" bideratuta. Hala ere, Gizarte Hezkuntzak ikuspegi kritikoagoa ekar dezake, hain zuzen, gizarte-baldintzatzaileek osasunean duten eragina interpretatzen laguntzen duena eta elikadura eskubideekin, kulturarekin, iraunkortasunarekin eta generoarekin lotzen duena, bereziki zentro irekiekin, egoitza-baliabideetan edo gizarte- eta hezkuntzako esku-hartze programetan.

3.2 Ikerketa galderak.

■ Elikadurari buruzko zer diskurtso aurkitzen dira gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeko eremuetan?

■ Elikadura-hezkuntza kritikoa testuinguru horietan txertatzeko zer aukera dago?

■ Nola har dezakete parte erabiltzaileek elikadura-proiektu komunitarioetan?

3.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ Alimentación. Hezkuntza baliabideak:

<https://redalimentacion.org/eu/>

■ Kit de campañas:

<https://redalimentacion.org/recurso-educativo/kit-de-campanas-justicia-alimentaria/>

■ Hezkuntza kritikoa eta eraldatzailea:

<https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/es/publications/373>

4.

Elikadura migrazio- prozesuetan ahalduntzeko tresna gisa.



4.1 Arazoaren planteamendua.

Gainontzeko pertsonentzat bezalaxe, pertsona migranteentzat ere, elikadura kultura-nortasunaren eta sustraiekiko loturaren funtsezko elementu bat da. Alabaina, migrazio eta bazterketa prozesuek elikadura-erreferenteak galtzea eta nagusi diren eredueta derrigorrez moldatzea ekar dezakete. Aldi berean, kozinatzea eta elikagaiak partekatzea ahalduentzeko, gizarteratzeko eta kultura adierazteko tresnak izan daitezke.

4.2 Ikerketa galderak.

■ Nola berreratzen da elikadura-identitatea migrazio prozesuetan?

■ Zer oztopo dituzte pertsona migranteek kulturalki egokiak diren elikagaiak eskuratzeko?

■ Ba al dago elikadura gizarteratze-tresna gisa erabiltzen duen proiektu komunitariorik?

■ Zer eginkizun izan dezake Gizarte Hezkuntzak prozesu horiek errazteko?

4.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ La alimentación como medio clave de inclusión y diálogo intercultural:

<https://abd.org/wp-content/uploads/2020/02/Food-Relations.pdf>

■ Justicia Alimentaria. Entreiguales:

<https://justiciaalimentaria.org/entreiguales-un-proyecto-que-persigue-facilitar-el-acceso-a-una-alimentacion-sana-sostenible-y-justa-a-los-colectivos-mas-vulnerables/>

■ Gastronomía de resistencia:

<https://siglosdesabor.net/cocina-hispano-americana/gastronomia-resistencia-como-comida-mestiza-desafio-colonialismo/>

5.

Elikadura nahasmenduak eta gizarte kalteberatasuneko testuinguruak.



5.1 Arazoaren planteamendua.

Elikadura portaeraren nahasmenduak (EPN) klase ertainekin lotu ohi diren arren, pobreziako eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen ere eragiten diete. Ikuspegi horretatik, esan dezakegu EPNe ez dutela gizarte-klaserik. Hala ere, kasu horietan, ez ikusia egiten zaie, edo malnutrizioarekin nahasten dira; agian ez dira detektatu ere egingo argal ez dauden gorputzen kasuan. Gainera, egoera larriagotzeko arriskua dago, osasun, gizarte edo hezkuntza baliabideen faltagatik. Gizarte Hezkuntzak ikuspegi intersektionala aplika dezake nahasmendu horien dimentsioak hobeto identifikatzeko eta, hala, horiek ikuspegi integral batetik detektatzeko, prebenitzeko eta laguntzeko eginkizuna bete ahal izateko.

5.2 Ikerketa galderak.

■ EPNak behar bezala identifikatzen eta artatzen al dira bazterketa testuinguruetan?

■ Zer gizarte-faktorek larriagotu dezakete kolektibo zaurgarriek janariarekin duten harremana?

■ Zer prestakuntza-baliabide daude arlo horretan Gizarte Hezkuntzako profesionalentzat?

■ Nola landu daiteke problematika hori ikuspegi komunitario eta ez-patologizatzaile batetik?

■ Nola zeharkatzen du mendealdeko ikuspegi zuriak EPNe detekzioa beste kultura batzuetako edertasun-kanonen arabera gorputzetan, eta nola baztertzen ditu gorputz horiek?

■ Nola detekta, identifika eta lagun litezke EPNak eragin kulturalak eta sozialak aintzat hartzen dituen ikuspegi intersektional batetik?

5.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ Anorexia, bulimia... Elikadura portaeraren nahasmenduak:

<https://guraso.eus/anorexia-bulimia-elikadura-portaeraren-nahasmenduak/>

■ Estrategia para la Nutrición, Actividad Física y Prevención de la Obesidad (NAOS):

https://www.aesan.gob.es/AECOSAN/web/nutricion/seccion/estrategia_naos.htm

■ Las barreras sociales en los trastornos alimentarios:

<https://tca.som360.org/es/blog/barreras-sociales-trastornos-alimentarios>

■ Estudio 136: Mujeres jóvenes y trastornos de la conducta alimentaria: impacto de los roles y estereotipos de género:

https://www.inmujeres.gob.es/actualidad/noticias/2024/IMAGEN/ResumenEjecutivo_Estudio136TCA.pdf

■ Salud mental y apoyo psicosocial en personas vulnerabilizadas: prácticas innovadoras y abordaje comunitario:

<https://www.medicosdelmundo.org/actualidad/publicaciones/informes/salud-mental-y-apoyo-psicosocial-en-personas-vulnerabilizadas/>

6.

Elikadura burujabetza hiri-testuinguruetan: komunitate eta hezkuntza ekimenak.



6.1 Arazoaren planteamendua.

Elikadura burujabetza ez da nekazarien aldarrikapena soilik, hirietan ere badaude ekoizpenaren, banaketaren eta kontsumoaren kontrol komunitarioaren alde borrokatzen diren mugimenduak. Hiri-baratzeak, kontsumo kooperatibak, elikagaien banku autogestionatuak edo sukalde komunitarioak... horrelako eremuetan gizarte-ekintza, kontzientzia kritikoa eta herri hezkuntza nahasten dira.

6.2 Ikerketa galderak.

■ Elikadura burujabetza hiritarreko zer esperimentazio daude tokiko testuinguruan?

■ Zer motibazio eta ikaspen eragiten dituzte parte-hartzaileengan?

■ Nola artikulatzen dira ahalduntze kolektiboko edo ingurua eraldatzeko prozesuak?

■ Zer nolako eginkizuna izan dezake Gizarte Hezkuntzak horiek dinamizatzeko eta laguntzeko?

6.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ Herrizoma. Gasteizko elikadura sarea eraldaketarako tresna:

<https://www.argia.eus/albisteak/gasteizko-elikadura-sarea-eraldaketarako-tresna>

■ Hurbileko laborari txikiek kudeatutako saltoki kolektiboa Maulen:

<https://www.argia.eus/albisteak/hurbileko-laborari-txikiek-kudeatutako-saltoki-kolektiboa-maulen>

■ Herramienta práctica para los procesos de viabilidad integral en experiencias económicas de Soberanía Alimentaria:

<https://emauscursos.com/pdf/DEF-DandoVidaBajaResolucionPliegos.pdf>

■ Red de huertos urbanos:

<https://nuestroshuertos.com/>

■ Ecologistas en Acción. Huertos comunitarios:

<https://www.ecologistasenaccion.org/19648/huertos-comunitarios/>

■ FoodTransitions. Desigualdad alimentaria en las ciudades. Relocalización, gobernanza y acceso a alimentos saludables:

<https://www.municipiosagroeco.red/foodtransitions/>

7.

Haurrak, pobrezia eta
malnutrizioa: gizarte
eta hezkuntzako esku-
hartzeko ikuspegi bat.



7.1 Arazoaren planteamendua.

Iparralde Globaleko herrialdeetan, haurren pobreziak malnutrizioa ekarri ohi du, nahiz gehiegikeriagatik (dieta desorekatua, produktu ultra-prozesatuak, baliabide ekonomiko urriak) edo gabeziagatik (elikadura-segurtasun falta larria). Baina oinarritzko arazoa globala eta estrukturala da: gosea eta malnutrizioa fenomeno erabat politikoak dira, eta gogorrago eragiten diete Hegoalde Globaleko Haurrei. Halaber, honako hauekin lotuta daude: gatazka armatuak, baliabideak kontrolatzea, kanpo zorra, nekazaritza-politika bidegabeak, klima aldaketa eta migrazio behartuak.

Hegoalde Globaleko testuinguru askotan, gosea ez du gabeziak eragiten, baizik eta elikadura-sistema bidegabeek eta gosea gerrako edo errepresioako arma gisa erabiltzeak. Lurrez jabetzeak, ekosistemak suntsitzeak edo esportaziorako monolaborantza inposatzeak komunitate askoren nutrizio-egoera larriagotzen dute. Horren aurrean, nazioarteko lankidetzak eta komunitate hezkuntzak –hemen zein han– funtsezko eginkizuna dute elikadura eskubidea bermatzeko.

Gizarte Hezkuntzatik, posible da tokiko zein nazioarteko testuinguruetan errealitate hori bistartatzeko lan egitea, komunitate prozesuak laguntzea, borroka tokiko-globalak artikulatzea eta elikadura burujabetza herrien eta haurren eskubide gisa defendatzea.

7.2 Ikerketa galderak.

■ Nola lotzen dira haurren malnutrizio baldintzak gatazka armatuekin eta politika neoliberalarekin?

■ Nola indar ditzake garapenerako lankidetzak elikadura burujabetzako eta haurrak babesteko prozesuak?

■ Zer eginkizun du komunitate-hezkuntzak eli-

kadura eskubidea pobreziatzko testuinguruetan bermatzeko?

■ Nola landu daitezke lotura global horiek gizarte eta hezkuntza arloko tokiko esku-hartzeetan, haur migranteekin edo bazterketa egoeran dauden hurrekin?

■ Hezkuntza-ekintzako zer esperientziak lotzen dituzte tokiko lana eta elikadura justiziaren aldeko borroka globalak?

■ Gizarte eta hezkuntzako zer estrategiak susta dezakete elikadura duina hartzarogan?

■ Nola inplikatu familiak erruduntasunik gabeko ikuspegi batetik?

7.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ FAO. El estado de la seguridad alimentaria y la nutrición en el mundo 2024. <https://doi.org/10.4060/cd1254es>

■ El hambre como herramienta de dominación <https://dialektika.org/el-hambre-como-herramienta-de-dominacion/?srsId=AfmBOoptKx-w9Xsgczk2AOX52cyFznH9WSh8kK4oe6aN4VKr6HrA7JSD>

■ Alimentar la justicia: desafíos y avances del derecho a la alimentación <https://elpais.com/planeta-futuro/2025-04-14/alimentar-la-justicia-desafios-y-avances-del-derecho-a-la-alimentacion.html>

■ Interseccionalidad en política educativa: pobreza, malnutrición y bajo nivel educativo: <https://recp.es/files/view/pdf/congress-papers/15-0/2513/>

■ Alimentación Sarea. Baliabideak eta proposamenak: <https://redalimentacion.org>

■ Estudio Aladino sobre alimentación, actividad física, desarrollo infantil y obesidad en España: <https://alimentarelcambio.es/estudio-aladino-2024/>

8.

GIHekin bat datozen
elikadura-politika
publikoak: gizarte
eraldaketarako aukera.



8.1 Arazoaren planteamendua.

Ingurua, komunitate-osasuna edota elikadurra-sistemak hobetu nahi dituzten plan, estrategia eta akordio ugari daude, baina konprometitutako ekintza guztiak ez dira azkenean gauzatzen. Inplementatzen diren kasuetan ere, beti ez dute nahi den inpaktua izaten. 2030 Agenda nazioarteko esparru komun global gisa aurkeztu zen, eta alde argia zuen aurreko beste akordio batzuekin: gizartearen maila guztien parte-hartzea (eta ez soilik gobernuena eta tokiko agintariena, orain arte bezala), eta izaera globalagoa duten helburuak eta xedeak ezartzea. Hala, 2015ean, akademia, sektore pribatua, eta GKEak, gizarte kolektiboak eta gizarte zibila sartu ziren jokoan. Zer eginkizun betetzen ari dira eragile berri horiek?

8.2 Ikerketa galderak.

■ GIHak bat al datoz benetan gaur egungo gizartearen elikadura-politikekin?

■ Ba al dago Estatuen elikadura-politiketan GIHak txertatzea oztokatzen duen elementurik? Zer ari da funtzionatzen eta zer ez?

■ Elikadura politiketan aurrera egin al da GIHei esker?

■ Eragile nagusiak (gobernua, akademia, sektore pribatua, gizarte zibila eta GKEak) beren eginkizuna betetzen ari al dira GIHak elikadura-politikan behar bezala ezartzeko?

■ Zer egin dezakegu etorkizunera begira elikadura-politikak hobetzeko?

8.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ Politika publikoak elikatzen:

<https://politikak-elikatzen.bizilur.eus/eu/elikadura-burajabetza-eraikitze-aldeko-politika-publikoak/>

■ Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS): una revisión crítica:

<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6312616>

■ Seguridad alimentaria: Una revisión crítica a partir del ODS 2:

<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=8831909>

■ ¿Seguridad alimentaria, soberanía alimentaria o derecho a la alimentación? Estado de la cuestión.

<https://doi.org/10.11144/Javeriana.cdr18.sasa>

■ La Seguridad Alimentaria como factor sostenible de Paz y Seguridad Internacionales.

<https://revistascientificas.us.es/index.php/araucaria/article/view/7790>

9.

Ekofeminismoak, feminismo komunitarioak eta elikadura Gizarte Hezkuntzan.



9.1 Arazoaren planteamendua.

Generoaren araberako diskriminazioak ohikoak dira gure bizitzaren hainbat arlotan. Hala ere, elikaduraren gaia ez ohi da azterketa horretan sartzen, eremu "pribatuko" kontu bat baita. Maiz, elikaduraren arloko esperientziak partekatzean, guztiok, eta bereziki emakumeok, badugu zer esan. Beraz, pentsa dezakegu (berriz ere) eremu pertsonala politikoa dela, eta kontu horiek gure gizarteetan nagusi den patriarkatu baten ondorio direla (berriz ere).

Ekofeminismoek eta feminismo komunitarioek ekarpen nagusi bat egiten diote genero-ikuspegi tradizionalari; hain zuzen ere, nagusi den merkatu-balioaren aurrean bizitzaren balioa eta zaintzak lehenesten dituen ikuspegia eskaintzen diote. Ikuspegi horrek asko du emateko elikaduraren arloan, izan ere, ekosistemak zaintzeari, babes-sare komunitarioei eta elikadurak giza bizitzekin duen harremanari buruzko hausnarketak jasotzen ditu.

9.2 Ikerketa galderak.

■ Zer nolako lotura du ikuspegi feministak elikadura politikekin?

■ Zer eginkizun dute emakumeek elikagaien ekoizpenean eta elikadura-hezkuntzan?

■ Nola adierazten da emakumeek herrietan eta auzoetan egiten duten lan komunitarioaren eta elikaduraren arteko lotura?

■ Nola zeharkakotu generoaren arloko kontuak Gizarte Hezkuntzatik, elikadurari edo bizitzaren eta komunitatearen zaintzari lotutako gaiak lantzeko?

■ Zer proposamen aurkitzen ditugu gure auzoetan eta herrietan ikuspegi horiek barneratzen dituztenak? Nola lagun dezake Gizarte Hezkuntzak proiektu horietan?

9.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ La situación de las mujeres en los sistemas agroalimentarios. FAO.

<https://openknowledge.fao.org/items/O36b994e-8371-4d82-a2af-abb932edae40>

■ Las mujeres alimentan al mundo. Entrepueblos.

<https://www.entrepueblos.org/publicaciones/las-mujeres-alimentan-al-mundo-soberania-alimentaria-en-defensa-de-la-vida-y-el-planeta/>

■ Biblioteca UOC sobre Alimentación y género.

<https://biblioteca.uoc.edu/es/biblioguias/biblioguia/Alimentacion-y-genero/>

■ Poner la vida en el centro. <https://gaceta.co/wp-content/uploads/2025/04/MiCASA-Imaginar-el-futuro-desde-el-sur-2-Poner-la-vida-en-el-centro-libro-digital.pdf>

■ Manifiestua. Lurre(z)ko ahizpen feminismoaren alde.

<https://mallata.com/lurrezko-ahizpen-feminismoaren-alde-landa-eremuko-emakumeen-aldeko-2020ko-manifestua/>

■ Representaciones de género en la publicidad de alimentos.

<https://revpubli.unileon.es/index.php/cuestionesdegenero/article/view/912>

10.

Baratze komunitarioak eta sozialak Gizarte Hezkuntzarako tresna gisa.



10.1 Planteamiento del problema.

Baratze sozialak edo komunitarioak, landa-eremuan zein hiri-eremuetan, eremu kolektiboak sortzeko tresna bat dira. Horietan, bada, jarduerak egiten dira beste pertsona batzuekin eta gizarte-kohesioko harremanak eraikitzen dira. Baratzeen helburuak askotarikoak izan daitezke, hala nola aisialdi osasungarria izatea, kon-
tu terapeutikoak, elikagaien autokontsumoa edo aurreko guztiak aldi berean. Baina kasu horietan guztietan, baratze komunitarioek, gizarte fun-
tzioa ez ezik, ingurumen eta kultura funtzioak ere betetzen dituzte, XXI. mende honetan bizi dugun krisiari aurre egiteko ezinbestekoak direnak.

Maiz, baratze sozialak eta komunitarioak Gizar-
te Hezkuntzako eta Gizarte Laneko tresna gisa erabiltzen dira errenta txikiagoko auzoetan, es-
petxeetan edo gizarte-egoera ahulean dauden inguruneetako ikastetxeetan. Baina lan hori bi-
deratzen duten lagunek beti ez dute jarduera horiek ikuspegi horizontal, integratzaile eta fe-
minista baten arabera garatzeko behar duten informazioa.

10.2 Ikerketa galderak.

■ Zer onura ekartzen diete baratze sozial eta komunitarioek gure herri eta auzoei?

■ Zer zailtasun izaten dituzte gizarte-eraikun-
tzako tresna gisa finkatzeko?

■ Nola funtzionatzen dute baratze horiek?

■ Zer jendeke parte hartzen du eta zertarako

■ Ba al dago genero-desparekotasunik par-
te-hartze horretan? Eta ordezkaritza-eginkizu-
netan?

■ Gizarte Hezkuntzako zer tresna izan daitezke erabilgarriak eremu horietan eta alderantziz?

10.3 Sakontzeko erreferentziak.

■ Zabalortu. Zabalganako ortu ekologiko auto-
gestionatuak.

<https://www.zabalortu.org/Nortzuk-gara>

■ Las huertas comunitarias como refugios bio-
culturales.

<https://laderasur.com/articulo/cooperacion-educacion-y-cuidado-del-medio-ambiente-las-huertas-comunitarias-como-refugios-bioculturales/>

■ El huerto social como estrategia para la edu-
cación ambiental.


<https://investiga.upo.es/documentos/5f6158cc29995241730c079f>

■ Huertas comunitarias como herramienta pe-
dagógica en barrios periurbanos de Mar del Plata.

<https://uvadoc.uva.es/bitstream/handle/10324/56790/TFG-L3295.pdf>

■ Huertopías. Ecourbanismo, cooperación so-
cial y agricultura.

<https://capitanswing.com/libros/huertopias/>



Antolatzaileak:

Finantzatzailea:

